

Kio dia

ndarribiko
adasekin hi-
s sukaldeko
ari nintzen,
a bat lagun-
rehala eseri

a jakina da.
abiatzekoa
unak lotzen
mintzatzen
batean, Eus-
lagun bate-
bol Kopako
azkenean,
go ditu han,
gintza bere-
Tokio egitas-

nduko Futbol
ar zenuen bi-

portaiak egi-
Japoniako
joatea. Ma-
eta japonia-
n, etengabe,

badituzu.

rtuta, Japo-
anetan jarri
a nuela esan
it lan egite-
Tokioko ta-
jarriko dut.

bat egingo
ari bat pres-
jaki eta me-
noduan aur-
ck jaialdi al-
ere badut.
biltzen dira,
nahi nuke.

re egin nahi
ta. Japonia-
ekintza bat
oriekin guz-
ez, bada fut-
so ezaguna.
koarekin jo-
n futbolean
nabil.

netsak

gauzak beste mundu batean ezin direlako gauzatu»

lan bat iza-
an 15 edo 20
obra, nik 20

la horrekin,
iak eraman
rosten duen
a elektroni-
ot, jasotzen
niara erama-
n guztien bi
«Batzuk Ja-
kten joango



«Artearen alorrean gauza

guztiak muturreraino eramatea gustatzen zait, gehiegikeria; inoiz ez naiz

geratzen bide erdian»

■ **Orduan ez zara joango Japoniako selekzioa animatzera?**

Saiatuko naiz, baina orain zaila dut, irailaren 11ko jazoeraz geroztik futbol zelaietan mozorrorik sartzen ez baitute uzten. Hala ere, ahaleginduko naiz.

■ **Zergatik erakarpen hori Japoniarekin?**

Txikitatik erakarri izan nau, baina, azken finean, aitzakia bat da nire lana egiteko. Artearen alorrean gauza guztiak muturreraino eramatea gustatzen zait, gehiegikeria. Artean edozer gauzak balio du, edozer har dezakezu zure lanaren oinarri, eta niri inoiz ez zait gustatzen bide erdian geratzea.

■ **Baina beste eragin batzuk ere jasotzen dituzu?**

Bai noski. Niri gauza politak gustatzen zaizkit, oso erraz maitemintzen naiz gauze-kin, eta hori guztia gero artelanetan islatzen da. Gauza ederrak egitea gustatzen zait, nire helburua beti ondo pasatzea eta ondo pasaraztea delako. Txinako eraginak, Europako artearenak, AEBetako marketinarena... jasotzen ditut.

■ **Askotan modu oso berezian jorratzen duzu artea. Zergatik?**

Artea nire betiko ametsak errealtate bihurtzeko modua da, hori da nire helburu nagusia. Artean murgilduta nago nik egin nahi ditudan gauzak ezin direlako beste mundu batean gauzatu; arteak, berriz, horretarako aukera ematen dit. Hala ere, askotan ez dakit arte edo desastre egiten dudana, edo artista edo autista naizena.

■ **Zure arteak manga-art zizilua darama beti. Zergatik?**

Manga-art nik asmatutako zerbait da. Manga atsegin nuelako eta egiten nituen



parrandengatik, jendea manga-artista deitzen hasi zen, eta azkenean, izen hori niretzat hartu nuen. Nik gauza oso ezberdinak egiten ditut, baina guztiei lotura ematen diona manga-artea da. Nire obrari zentzua ematen diona da, nire etiketa.

■ **Eta zuk bakarrik egiten duzu?**

Nik asmatu dudanez, ni naiz lehenengo manga-artista. Hala ere, nahi duena egiten duena eta gustura aritzen dena niretzat jada manga-artista da. Izan artista, tabernaria edo igeltseroa.


■ **Japoniako bidaiaz gain, zeintzuk dira zure proiektu nagusiak?**

Ekainaren 1ean erakusketa bat irekiko dut Madrilan, eta horretan ari naiz lanean. Gorputzak eskatzen didana egiten dut beti. Orain pinturan, eskulturaren eta bideoan jarduten dut, batez ere.

■ **Erakusketa guztietan kantatu egiten duzu.**

Apur bat desmitifikatzeko egiten dut. Ez naiz artista soila, manga-artista naiz, eta hori super heroi bat izatea bezala da. Gauza ezberdinak egin nahi ditut, ondo pasatu... Japonieraz kantatzen dut, bideo proiektzio bereziak egin...

Japoniako marrazkiak munduan zehar



Manga 'komikia' da japonieraz. Esanahi horrek, ordea, makina bat irudi ekarri ditu gurera. Komikiak, marrazki bizidunetako saioak, filmak... Manga izendapen hori inportazio iturri amaigabea da, eta horrek eraginda, manga zaletasun handia sortu da Euskal Herrian.

Judas gazte-gaztetandik harrapatu zuen korrante horrek, eta zaletasunak bultzatuta, jarraipen itzela egin dio arte modu honi eta argitaratzen den guztian: «Euskal Herrian manga zaleak biltzen dituen kultur elkarte dezente daude», dio Judasek. Erakusketak, jardunaldiak, zinema emanaldiak eta abar antolatzen jarduten dute. «Mugimendu hauek agian ez dira asko entzuten, komunikabideetan-eta ez dira sarritan agertzen, baina sare izugarria osatzen dute; hauek ez dute pentsatzen Euskal Herrian edo beste nonbaiten daudenik, leku guztietan daudela sentitzen dute, zeren harremanak ez dira pertsonen artekoak; Internet bidez sortutako elkarrizketak edo hartu-emanak dira gehienak».

Marrazkilarien artean ere, Euskal Herrian badira Japoniako mangaren estiloko marrazkiak egiten dituztenak. Euren lana zabaltzea, ordea, oso zaila dela azaltzen du Judasek: «Nahiz eta istorio on bat izan, zaila da norbaitek zure lana jaso eta argitaratu nahi izatea, Japoniatik etorriko dena beti askoz ere hobea izango delako».

Manga garai onean den arren, gaurkoa baino oparotasun handiagoa izan du aurreko hamarkadetan: «70eko hamarkadan eztanda handia gertatu zen marrazki bizidunekin; gero pixka bat baretu zen, eta 80ko hamarkadan Akirak beste zurrumbilo handi bat sortu zuen». Judasen ustez, orain ez dago horrelako boom-ik, baina osasuna oso ona da.


Europan, manga komikien argitaratzaileek epe luzerako apustua egina dute. «Haiek ikusten dute komiki irakurleak bereziki gazteak direla, eta multzo hori helduago bihurtzen denean irakurtzen jarraituko dutela eta komiki gehiago erosiko dituztela». Horren inguruan dago antolatuta mangaren industria.

Japonekin alderatuz gero, errealtate zeharo ezberdina da. Han, biztanleen %70ek irakurtzen dituzte komikiak, zinemaren marrazki bizidunetako filmak ikustera ohituta daude, errenta aitorpena nola egin behar den azaltzeko ere komikiak dituzte... Metro ondoan, gure telefono giden antzeko liburuxkak banatzen dituzte, komikiz beteta, eta hor arrakasta handiena dutenak argitaratzen dira gero.

Euskal Herrian, noski, ez dago horiek guztiak ikusteko aukera. Europara argitalpenik komertzialenak heltzen dira, eta gainerakoak eskuratzeko Interneten edo denda espezializatuetan saiatzen dira zalerik sutsuenak.

Argitaratzeko moduak ere zeharo ezberdinak dira.

Japonian komikiak atzekoz aurrera irakurtzen dituzte, eta koloreztatu gabekoak ere ugari dira.



BNVA. En Bilbao uno de los edificios más grandes que hoy es del BNVA, siempre que lo mira ya sea de noche o de día me llama la atención (y no creo que sea solo a mí).

El proyecto cambió en proporción a los dirigentes del BNVA una intervención estética en su edificio y se como Margotha les para...
El proyecto cambió en proporción a los dirigentes del BNVA una intervención estética en su edificio y se como Margotha les para...
El proyecto cambió en proporción a los dirigentes del BNVA una intervención estética en su edificio y se como Margotha les para...

BOI BOI MANGA ARTI